



Ane Lazkano eta Jone Lazkano, Herrerako jai batzordeko kideak. **HERRERAKO JAI BATZORDEA**

## Intxaurrondoko ideia jarraituz, Harria Apustua egingo dute Herreran

Hiru asteburu iraungo dute Herrerako jaiak, gaur hasi eta ekainaren 23an amaitzen diren arte. Berritasunez josita datoz, lagun berriak aurkeztu eta kuadrillen arteko desafioa egingo dutelako lehenengoz.

T\_Sara Ibarburen Etxeberria

**H**errerako Luisito eta Luisita erraldoiek hamar urte beteko dituzte aurten, baina jaietan data horri ez diote garrantzi berezirik emango, izan ere, beste berritasun bati eman nahi diote indarra auzoan. «Laguntxo berriak etorriko dira hemendik aurrera Luisitori eta Luisitari laguntzera Herrerako jaietan. Sorpresa bat da, baina haurren txupinazo egunean, ekainaren 15ean, izango dute auzotarrek honen inguruko informazio gehiago», azaldu du Ane Lazkanok, Herrerako jai batzordeko kideak.

Gainerakoan, programan ohiko egitaraua mantendu dutela adierazi du Lazkanok, baina aurtengo desberdintasun gisa, beste asteburu bat gehitu diete jaiak. «Horrek suposatzen du hiru asteburuko jaiak izango direla. Lehenengoa kirol asteburua da, eta hainbat final jokatzeko aprobetxatzen dugu, adibidez, bolo txapelketa edo Mozkor Frenkekideon gizonetzkoen eta emakumezkoen finalak», nabarmendu du.

Jaiak, ofizialki, ekainaren 13an hasiko dira, 19:00etan, txupinazoa botatzeare-

kin batera. Jaiak ongi etorria emateko, Herrerako bizilagunak dotore jantzita joango dira plazara, eta pintxo-potea egingo dute jarraian.

### Kontzertu handiak

Lazkanok azaldu du Herrerako jaietako kontzertuek ospe handia izaten dutela, eta aurten ere talde garrantzitsuak izango direla oholtzara ekainaren 14an. 22:00etatik aurrera, Koma, Kaos Etiliko eta Deklibe taldeen kontzertuez gozatu ahal izango da auzoan.

Kontzertu horiez gain, haurrentzat ere musika ikuskizun potolo bat prestatu dute aurten, izan ere, ekainaren 15ean, *Golazen* telesail ospetsuko karaoke antolatuko dute, eta bertan izango dira telesailako hiru aktore haurrekin eta familiekin abestiak kantatzeko prest.

Egun berean, gau partean, Elektro Buiaka eletrotzarangak giro tuko ditu auzoko kaleak, eta gauerdian Bidean taldearen erromeria izango dute etengabe dantzari aritzeko.

### Berritasunak, hirugarren asteburuan

Hirugarren asteburuan, Herrerako jaietako berritasun sorta bildu dute. Hilaren 22an, lehen aldiz, ardo dastaketa

egingo dute eguerdian auzoko plazan. «Upategi desberdinek beraien ardoak ematea lortu dugu, eta horiek jarriko ditugu dastatzeko. Jaietako ardo kopa eskuratuta, hainbat ardo probatu ahal izango dira», azaldu du Lazkanok.

Hala ere, dastaketa ez da bere horretan geratuko, jaiak direla eta, dastaketarekin batera joko bat egingo dutelako. «Ardo dastatzen dutenei zerrenda bat pasatuko diegu, eta ardo bat edaten dutenero, zein ezaugarri dituen zehaztu beharko dute. Gehien asmatzen dituen izango da txapelduna, eta ez dakit saririk egongo den, baina behintzat harro egoteko arrazoiak izango ditu», esan du, barrez.

Haurren txupinazoaren egunean Luisitori eta Luisitari laguntzera etorriko diren laguntxo berriak aurkeztuko dituzte auzoan

Eta beste berritasun garrantzitsua egun horretan bertan egingo den Harria Apustua da: «Intxaurrendoko jaietako ideia hartuta, apustu bat egin zuten Herrerako kuadrilla hainbaten artean. Jaiak aprobetxatuko dituzte apustu hori egiteko, eta hiru kuadrillak 500 kiloko harria igo beharko dute Ederrena kalean gora». Apustu honetarako, kamiseta berriak atera dituzte, eta talde bakoitzak kolore desberdin batekoa eramango du. Beraz, ikuskizuna ziurtatuta izango da aurten ere Herrerako jaietan.

## Egitaraua

### EKAINAK 7, OSTIRALA

**19:00etan, Herrerako bolatokian:**  
Bolo txapelketa, Herrerako txistulariekin.

### EKAINAK 8, LARUNBATA

**10:00etan:**  
XXXVII. Mozkor Frentekideok pala kopako finala.

**11:00etan:**  
Hamaiketakoa Pasaiaiko txistulariekin, Xixurkil trikitalariekin eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

X. Nesken Mozkor Frentekideok pala ligako finala.

**11:30ean, plazan:**  
XXXVII. Mozkor Frentekideok pala ligako finala.

**12:00etan:**  
Angelusa Pasaiaiko txistulari eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

**12:30ean:**  
Sari ematea, musikatuta.

**13:00etan:**  
Kalejira.

**14:00etan:**  
Bazkaria, musikatuta.

**16:00etan:**  
Xixurkilen *show*-a.

**20:00etan:**  
Denok Larratxora, berreskura dezagun!

### EKAINAK 9, IGANDEA

**08:30ean, Herrerako plazatik:**  
Mendi irteera.

### EKAINAK 10, ASTELEHENA

**19:30ean, Euskal Giroan:**  
Haur eta helduen danborrada entsegua.

### EKAINAK 11, ASTEARTEA

**19:30ean, Auzotegian:**  
San Joan suaren dantza entsegua.

### EKAINAK 12, ASTEAZKENA

**19:30ean, Euskal Giroan:**  
Haur eta helduen danborrada entsegua.

### EKAINAK 13, OSTEGUNA

**17:00etan, Herrera K.E.-an:**  
Haurren zinema.

**18:00etan, Herrerako plazan:**  
Rock kontzertua Herrerako musika eskolaren eskutik.

## Errehabilitazioak

- Fatxadan isolamenduak
- Teilatu konponketak
- Zaharbertzeak
- Teilatuak



GIPUZKOAN, EUSKAL HERRIAN ETA  
INGURUKO PROBINTZIETAN.

[jobilan.eus](http://jobilan.eus) 620706936

## Gora Herrerako jaiak! OSASUNEAN INBERTITU!

FISIOIRATXE

- TERAPIA MANUALA
- TERAPIA LINFATIKO INTEGRALA

Juan XXIII.aren pasealekua, 6, 20016 Donostia · Tel.: 696-92 4154

# Herrerako jaiak

**19:00etan:**  
Txupinazo elegantea, txarangarekin.

**19:10ean:**  
XI. pintxo-pote elegantea, txarangarekin.

**21:00etan:**  
Txosna irekita.

## EKAINAK 14, OSTIRALA

**17:30ean:**  
Ikastetik edo lanetik jaietara!

**18:00etan, Herrerako plazan:**  
Zirku tailerra *Topo-egin*.

**21:00etan:**  
Afaltzera. Kalejirak auzoa alaituko du!

**22:00etan:**  
Kontzertuak: Koma, Kaos Etiliko eta Deklibe.

**22:00etan:**  
Rider DJ-a txosnagunean.

## EKAINAK 15, LARUNBATA

**09:00etan:**  
Diana, Donostiako txistulariekin.

**11:30ean, Herrerako plazan:**  
Umeentzako puzgarriak plazan.

**12:00etan:**  
X. Herrerako Jaiak paella lehiaketa.

**12:30ean:**  
Kale animazioa, Herrera alaituz!

**14:00etan:**  
Herri bazkaria, paella jan itzela.

**16:00etan, Herrerako plazan:**  
Umeentzako puzgarriak plazan.

**17:25ean:**  
Gazte eta ez hain gazteentzako joko olinpikoak.

**17:30ean:**  
Haur txupinazoa.

**17:45ean:**  
Marrazki lehiaketaren sari banaketa.

**18:00etan:**  
*Golazen* karaoke emanaldia.

**19:15ean:**  
Buruhandi eta erraldoiak, Herrerako txistulari eta Alano alboka taldearekin.

**20:30ean:**  
Kirolari olinpikoentzako afaria.

**21:00etan:**  
Sardina jana Herrerako plazan, Herrerako trikitixa eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

**22:00etan:**  
Eelektro Buiaka elektrotxaranga.

**00:00etan:**  
Bidean erromeria.

**02:00etan:**  
Mozkor jokoak.

## EKAINAK 16, IGANDEA

**09:00etan:**  
Diana, Herrerako txistulariekin.

**11:00etan:**  
Herrerako VIII. Boilur azoka.

Euskal jaia eta artisau azoka

Herri Ametsaren eskutik, Dantzari Txiki Eguna.

Buruhandi eta erraldoien irteera.

**11:30ean:**  
Puzgarriak eta ur jolasak.

**12:00etan:**  
Marianito Fest. Zatoz txosnara jaietako bermuta hartzera.

**12:30ean:**  
Kantujira. Herrera Kantuz abesbatzarekin eta musika eskolako trikitilariekin.

**13:00etan, Euskal Giroa aurrean:**  
Apar festa.

**14:00etan:**  
Herri kantu barrikotea Herrerako txistulari, trikitilari eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

**16:00etan:**  
Luisito! Luisita! Puzgarriak eta ur jolasak.

**17:30ean:**  
Herri kirolak.

**19:15ean:**  
Erromeria gidatua.

## EKAINAK 17, ASTELEHENA

**19:30ean, Auzotegian:**  
San Joan suaren dantza entsegua.



**ZUMARDI**  
taberna



GORA HERRERAKO JAIK!

ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA - Tel. 943-39 37 75

## EKAINAK 18, ASTEARTEA

### 19:30ean, Euskal Giroan:

Haur eta helduen danborrada entsegua.

## EKAINAK 19, ASTEAZKENA

### 19:30ean, Auzotegian:

San Joan suaren dantza entsegua.

## EKAINAK 20, OSTEGUNA

### 18:00etan, Nido tabernan:

Haurren VI. Futbolin Txapelketa.

### 19:00etan, Nido tabernan:

Helduen VI. Futbolin Txapelketa.

## EKAINAK 21, OSTIRALA

### San Luis eguna

### 11:00etan, Herrerako parrokiari:

Herri meza Ibaeta abesbatzarekin.

### 13:00etan:

Jubilatuentzako ordubetetakoa.

### 14:00etan, Aterpean:

Bazkaria jubilatatu eta ez jubilatuentzat.

### 14:30ean:

San Luis bazkaria.

### 17:30ean, Aterpean:

Beti-alai taldearekin dantzaldia.

### 17:30ean, Herrerako plazan:

Haurrentzako kale ikuskizuna. Patata Tropikalaren *Ametsen Mundua*.

### 18:30ean, Herrerako plazan:

Haur eta Gazteentzako euskal bingo musikatua.

### 19:00etan, San Luis parrokiari:

Easo abesbatzako beteranoen eskutik emanaldia.

### 19:30ean, Herrerako plazan:

Haurrentzako txokolate jana.

Kale animazio musikatua

### 20:30ean, txoznako terrazan:

Miguelmari... bakarlariaren kontzertua.

### 22:00etan, txoznan:

Saltsa Gauari hasiera.

## EKAINAK 22, LARUNBATA

### 11:00etan:

Umeentzako puzgarriak.

### 12:00etan, Herrerako plazan:

Ardo kata.

### 15:00etan:

Umeentzako puzgarriak.

### 17:00etan:

Herrerako Harria Apustua: 500kiloko harria nork azkarrago igo frontoiko aldapatik?

### 19:15ean:

Haur eta helduen danborrada, Arraketari txarangarekin eta Luisito eta

Luisita erraldoien paseoa Alano alboka taldearekin.

### 20:30ean, Herrerako plazan:

Afariak eskainiko dira: parrillada.

### 21:30ean, Herrerako plazan:

Andoni Oilokiegiren kontzertua.

### 23:30ean, Herrerako plazan:

Itzal taldearekin erromeria.

## EKAINAK 23, IGANDEA

### San Joan bezpera

### 18:00etan, Herrerako plazan:

Ping-pong eta toka txapelketa.

### 19:00etan:

Trikipoteoa.

### 20:30ean, Herrerako plazan:

Afari herrikoia: kaxuelitak eta tortillak.

### 21:59ean:

Ohiko San Joan sua. Pasaiako txistulariekin eta Beti Alai dantza taldearekin.

### 23:00etan:

Zezensuzkoa eta azken traka. Herrerako txistulariekin.

### 23:15ean:

Luisita eta Luisito DJ-ak.

### 23:59ean:

Gaixoa ni! Nora zoazte Luisito ta Luisita?! Jarraitu dantzan.

